

**TXIMELETA**

Eguzki, beilegi,  
giro ezti,  
oskarbi jaikia  
bares, garbi,  
iriri  
biriri  
izkimiri  
pinpliri paranpli  
ñirñiribri

jai arratsaldea  
handi, geldi:  
baso ta zelaien  
iasa, berri.  
ballet  
txantxibiriz  
txirimiri,

Garden ernaiz,  
ordi,  
tximeleta,  
finfirin, fanfarin  
txilibili  
filfil tximetela  
irizigi,

airez, mairez firi,  
parrandari,  
firfar zoragarriz  
osto, lili,  
triofli biroTXI  
tutíMEtsi  
fiLEri dibegi  
TAKlirupri

artazi, kliskada  
zilipurdi,  
pozaren kometa  
balanbili  
TXIriri,  
ñikari  
MEkidaki,  
LEdibi  
loreñi  
TAñueñi,

pinpili panpili  
pauxa piri,  
jarei, ñiñirimi,  
segail, zauli  
telire liberri  
disefiri  
gitoxi zerifi  
TALEMETXI

margo zoli pikar,  
dirdir, bitxi,  
pipil, iotazipi  
kilikari,  
alaiki arraiki  
txibiltxori  
bi hego dindirri  
txalupitxi

iraулка-miraулка  
txiribiri,  
paisaia jantzian  
apain, argi  
iñiri miñiri  
kilimusi  
Oñatiz, ñapurki,  
oñirimi.

txilibiklik txiri  
flarafliri,  
lixfitin bilinbi  
radizari